




LIBURUA

Xolarekin gozatzeko



KORNEREUS / WIKIPEDIA

HOLAXE BIZI DA XOLA

TESTUA: BERNARDO ATXAGA

ILUSTRAZIOAK:

MIKEL VALVERDE

EREIN, 2023

XABIER ETXANIZ ERLE

1995ean argitaratu zen Xolaren lehen obra euskaraz, *Xolak badu lehoien berri*. Harrez gero Erein etxeak beste lau liburu argitaratu ditu (bada beste bat 2000. urtean *Gara* egunkariak plaza-ratu zuena) guztiak Atxagak idatziak eta Mikel Valverderen ilustrazioekin.

Ziur nago, alde horretatik, gure irakurle askoren ezaguna dela txakur bizkor eta berezi hau. Baina norbaitek ez badaki nor den Xola, zera esango genuke, Xola txakur abenturazalea dela, baina baita filosofoa, ausarta, pragmatikoa, kultua, beldurtia, ameslaria... ere. Alegia, edonoren sentimenduak eta sentsazioak mugiarazten dituen txakurra dela.

Hogei urte daude lehen Xolatik, lehoi zela uste zuen hartatik azkenengora, *Xola eta lapurra* obran aurki dezakegun txakur guztiz pragmatiko eta beldur-

tia baina egoeraz ederki aprobetxatzen dakiena.

Izan ere horixe da Xolaren ezaugarri bat, norberaren baitako eztabaidetatik haratago bere alde praktikoa ateratzen dakiela beti, umore puntu batekin. Horretan guztiz garrantzitsuak dira Xola eta Grogio jaunaren arteko elkarrizketak, edo Valverderen irudiak testuaz gaindiko informazioa emanez eta irakurleari hainbat mezu helaraziz.

Atxagak haurrentzat idazten du baina literaturari uko egin gabe, bihotza eta burua mintzo zaizkio Xolari, Angelitok ekintzez eta hizkeraren bidez adierazten digu bere nortasuna, dominak jasotzen ditu Xolak lapurra harrapatzean baina txokolatetzkoak, horiexek baitira txakurrari interesatzen zaizkionak... Atxagak ironia darabil, hizkuntzarekin

jolasten du, bizitzaz filosofatzen, baina horren guztien gainetik irakurlea harrapatzen du istorio entretenigarri eta umoretsuen bidez.

Xolaren abenturek hainbat sari eskuratu dituzte, bigarren obrak, *Xola eta basurdeak*, Euskadi saria merezi izan zuen; itzulpenak, bestalde, Erresuma Batuko Marsh Award for Children's Literature in Translation saria, eta Japonen ere munduko haur obra onenen artean kokatu dute. Sari eta arrakasta horren erakusgarri dira liburuaren kontrazalean ageri diren kanpoko komunikabide eta adituen laudorioak (hemengo bat ere ez, ordea). Esku artean dugun edizioak (ingelesez edo japonieraz egin direnen paretakoak) balioko al du berriro irakurtzeko Xolaren abenturak, berriro Xolarekin gozatzeko! ●